

Jarduera
nagusia,
papergintza

Zortzi paper fabrika
daude eskualdean ▶ 4



Tolosako Herri Krosa eta mendi bizikleta trabesia, gaur goizean

JAIK ▶ Gaur amaituko dira Berazubikoak; Kultur Astea hasiko da San Estebanen

KROSA ▶ XVII. edizioa du; San Estebanetik abiatuko dira korrikalariak 11:00etan

TRABESIA ▶ Mendikuterren eskutik, 10:00etan hasiko da bizikleta proba Berazubin ▶ 5-6

Denboraldi berriko partidu onena eginda, galdu egin du Ibarrek berriz ere (3-4)

IBARRA ▶ Cantabriako (Espainia) Candesa Camargo taldea indartsu zegoen; zeresana eman zuen epaileek egindako lanak ▶ 6

INIGO TERRADILLOS



Manifestazioa, atzo. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Maxurrenea herriarentzat izatea eskatu dute berriro leitzarrek

Hainbat guardia zibil inguruan zituztela egin behar izan dute protesta ekintza ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Oriako-ko bigarren urteko jubenilen emaitza ezin hobeak

Hamabost garaipen lortu dituzte txirrindulariek denboraldi honetan ▶ 2-3



Iriarte eta Gurrutxaga, Ezkio-Itsasoko helmugan, eskutik helduta. HITZA

LEITZA ▶

270 kiloko harria jaso du Inaxio Perurenak

Marka berria egin du kirolari gazteak ▶ 7

TXIRRINDULARITZA ▶

Oriako-ko jubenilen marka

Oriako Txirrindulari Eskolako bigarren urteko jubenilek aurrekaririk gabeko denboraldia burutu dute aurten 15 garaipen lortuz; denboraldiari amaiera emateko, Udazkeneko Kriterium-a ere irabazi dute

IÑIGO ASENSIO

Urteko talderik indartsuena izan da Gipuzkoan, lasterketak haien gustura kontrolatu dituzte eta apiriletik irailera bitartean hamabost lasterketatan izan dira garaile. Aitor Olanok, Eneko Gurrutxagak, Xabier Iriartek eta Imanol Mendikutek badakite egin dutena eskolaren historiako lorpen handienetako bat dela, baina hala eta guztiz ere umiltasun osoz jarraitzen dute lanean. Denboraldia bukatu berri dute baina badakite atsedenerako astirik ia ez dutela izango: «Azaroan gimnasio saioak, igeriketa, frontenis eta mendiko bizikle-

ta lantzen ariko gara, eta Egu-berrietarako errepideko bizikletan entrenatzeari ekingo diogu», diote. Urte guztia ikasten eta entrenatzen pasatu ondoren ez zaie aisirako denbora gehiegi geratzen, baina ez dirudi asko larritzen dituenik horrek. Aitor Olanoren hitzetan, txirrindularitza «sakrifizio handiko kirola da, baina gustuko duguna, eta horregatik ez zaigu gehiegi kostatzen egunero bizpahiru ordu pedalei ekiten aritzea». Laurak Gipuzkoako hamar txirrindulari onenen artean daude, baina horrek ez du haien planteamendua ezertarako aldatuko, izan ere, laurak Ingeniaritza Industria

ikasten hasi dira aurten. Apirilean lortu zuten lehen garaipena, Iriartek Debako lasterketa irabazi zuenean. Orduz geroztik, joandako irailaren 26an denboraldia amaitu zen arte, hamabost garaipen lortu dituzte, eta bigarren eta hirugarren postuak 25etik gora izan dira. «Gure artean asko lagundu diogu elkar, eta horrez gain lehen urteko Ander Zaldua eta Aritz Ugarteren laguntza ezinbesteko izan zaigu», dio Eneko Gurrutxagak. Benetako erakustaldiak eman dituzte urtean zehar. Anoetan, esaterako, lehengo lau sailkatuak beraiek izan ziren, Olano eta Mendikute eskutik emanda iritsiz. Ezkio-

itsason, Iriarte eta Gurrutxaga ere eskutik helduta iritsi ziren, txirrindularitza gutxitan ikusten den irudi bat errepikatuz. Gipuzkoako Itzulia Aitor Olanok hirugarren izan zen sailkapen orokorrean, Mendikutek etapa bat eraman zuen eta Gurrutxagak tarteko helmugan sailkapena. Horrela jarraituz, etengabe jarraienez gabe behar lortzen ari zirela aipatzen du denboraldi amaierako Udazkeneko Kriterium-era iritsi arte. Udazkeneko Kriterium-a urteko azken proba garrantzitsua da, hiru etapa osatua, eta sailkapen orokorreko lehen lau sailkatuak izan ziren proba horretan. Beraien arteko lehia

oso ondo eramaten jakin dute. «Denboraldi hasieran laurak lasterketaren bat irabaztea zure helburua eta guztiek lagundu diogu elkar hori lortzeko», dio Xabier Iriartek.

Afizionatuarentzat bidean

Hurrengo denboraldira begira Mendikutek garbi dauka: «Lehen urtea lasai hartuko dugu eta eskolako afizionatuetako taldean ariko gara; gauzak poliki egin eta maila berrira ohi-tzen joan behar dugu». Laurek badakite txirrindularitza maila gogorrago batean sartzera doazela, baina jakin ere badakite edonon gailentzeko gai direla.

PALMARESA ▶

GARAIPENAK

Deban: Xabier Iriartek.
Legorretan: Imanol Mendikutek.
Lazkaon: Eneko Gurrutxagak.
Mutrikun: Aitor Olanok.
Anoetan: Aitor Olanok.
Egjan (Gipuzkoako Txapelketa): Aitor Olanok.
Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa: Imanol Mendikutek.
Erlojuaren aurkako taldekako Gipuzkoako Txapelketa.
Ezkio-Itsason: Xabier Iriartek.
Liernin: Aitor Olanok.
Oñatin: Aitor Olanok.
Garinen: Aitor Olanok.
Udazkeneko Kriterium-eko 1. etapa: Imanol Mendikutek.
Udazkeneko Kriterium-eko sailkapen orokorra: Imanol Mendikutek.



Aitor Olano, Eneko Gurrutxaga, Jesus Manso zuzendaria, Imanol Mendikute eta Xabier Iriarte, Udazkeneko Kriterium-eko podiumean. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@innormio.com
www.innormio.com

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo kalean, 2 logela, erabat berritua, ezin hobeto, igogailua jartzeko aukera.

Tolosa. Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Amaro zuzen oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailua eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, pisu ederra garajearrekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108 m², pisu ederra salgai, trastelekuarekin.

Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitua.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Ikustekoa!!!

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin, aukera paregabea!!!

Ibarra. Argindegi, hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela, berokuntzarekin.

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldia, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Guztiz kanpoalderra.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxe-ondo, pisua ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale Berrian 180 m²-ko etxebizitza berokuntzarekin.

Villabona. Errota, pisua ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza

berriko etxea salgai. Garaje bikoitza itxiarekin.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garajearrekin.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Lizartza. 125 m²-ko etxebizitza eta 125m²ko baxua. Merkea.

Alegia. San Juan kalean bi etxebizitza salgai, 161 m² eta 100m²-koak.

Ordizia. Berritutako etxebizitza merkea salgai.

Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

RAMON ELKORO ▶ PRESTATZAILE FISIKOA

«Gazteei, entrenatzerakoan, helduen ikuspuntutik begiratu izan zaie beti; akats handia da hori»

Ramon Elkoro Oriako Txirrindulari Eskolako bigarren urteko lau jubenilen prestatzaile fisikoa da. 1979an hasi zen igeri-lariekin lanean, eta orduz gero ehunka kirolari pasatu dira bere eskuetatik. 25 urtetako ibilbidean oinarritutako jakinduriarekin, bere metodoez eta etorkizunaz mintzatu da HITZAREKIN.

Zein dira Oriako-ko mutilen prestakuntza proposa eramateko gakoak?

Garrantzitsuena bakoitzaren ahuleziak lantzea da, baina betiere formakuntzan oinarrituz. Esfortzu proba batean gauza asko ikus ditzakegu medikua-ren laguntzaz. Aitor Olanok gihar ahulak zituen; nirekin denboraldi eta erdi lanean aritu ondoren ohartu zen horretaz. Hori behar-beharrezkoa da, kirolariak egiten duenaren arrazoiez jabetu behar du.

Behin hori lortuta, lan egitea errazagoa da; bakoitzaren ezaugarri fisikoetara egokitutako entrenamendua prestatu, eta haiekin kontaktuan egonez, eguneroko entrenamenduan sor daitezkeen arazoak bideratzen saiatzen naiz. Norbanako atentzioa da behar duena; lan orokorrak ez du ezertarako balio, kirolari bakoitzaren prestakuntzak berezitasun asko dituelako.

Prestakuntza aldetik, profesionaltasun handia nabari da gazte horienengan.

Entrenamenduen kontrol lana adin hauetan egitea helduekin egitea baino garrantzitsuagoa da. Gazteei, entrenatzeko garaian, helduen ikuspuntutik begiratu izan zaie beti, eta hori akats handia da. Kirolariaren gorputza ondo ezagutu behar da eta horren arabera entrenamendua prestatu, bestela

astakeria handiak egin daitezke, eta gerora entrenamendu ohitura txar horiek nabarmendu egiten dira.

Zer azzimarratuko zenuke bakoitzaren ezaugarrietatik?

Lasterketa taktikoki ondoen irakurtzen duena Aitor Olanok da. Mendikutek oso muskulatura egokia du, fibra gorri portzentai handiarekin. Xabi Iriartek, gihar indartsuak izateaz gain, bere buruaren ezagutza handia du, garbi dauka zenbat eska diezaiokeen bere gorputzari. Enekok sufrimendu gaitasun ikaragarria dauka, horri esker izugarritzko hobekuntza egiteko gai izan da. Bestalde, orokorrean disziplina handia dute laurak eta horrek, dudarik gabe, eragina izan du beraien errendimenduan.

Zer espero dezakegu etorkizunera begira?

Beraiek garbi daukate ez di-



L.ASENSIO

tuztela ikasketak alde batera utziko, baina horrek ez luke aurrera jarraitzekotan arazo izan behar. Afizionatueta lehen denboraldia garrantzitsua izango da haien eboluzioa ikusteko; asko hobetu dezake-te oraindik. ◀

TALDEKIDEAK ▶



AITOR OLANO

- ▶ Herria: Altzo.
- ▶ Altuera: 1' 80.
- ▶ Pisua: 63 kg.
- ▶ Igotzaile ona.



ENEKO GURRUTXAGA

- ▶ Herria: Amasa.
- ▶ Altuera: 1' 75.
- ▶ Pisua: 68 kg.
- ▶ Gizon azkarra.



IMANOL MENDIKUTE

- ▶ Herria: Hernialde.
- ▶ Altuera: 1' 73.
- ▶ Pisua: 68 kg.
- ▶ Erabateko txirrindularia.



XABIER IRIARTE

- ▶ Herria: Ibarra.
- ▶ Altuera: 1' 73.
- ▶ Pisua: 61 kg.
- ▶ Txirrindulari explosiboa.

ORKATZ GOENAGA ▶ ZUZENDARIA

«Baliteke, talde bezala, Oriako Txirrindulari Eskolaren historiako denboraldi onena izatea»

Orkatz Goenaga Oriako Txirrindulari Eskolako Jubenilen zuzendaria da, Jesus Mansorekin batera. 25 urte ditu eta honekin dagoeneko 7 urte daramatza Oriako-ko zuzendari gisa. Tolosarrekin egon da HITZA eta berarekin, aurtengo denboraldiaz mintzatzeko aukera izan du.

Zein uste duzu izan dela horrelako denboraldi bikaina burutzeko arrazoi nagusia?

Gogotsu eta serio aritzen den belaualdi bereko lau lagunekin topatzea izan dela iruditzen zait. Lasterketa barruko zein kanpoko giro ona garrantzitsua izan da. Horrez gain, jubenetan beraiekin ibiltzen diren lehen urteko Ander Zaldua eta Aritz Ugarteren laguntza ere aipatzekoa da.

Lasterketa guztietan lehen postuetan ibili behar zenutela

jakiteak motibazio handia suposatu behar du zuzendari bezala, ezta?

Karretetara joateko gogo izugarria behintzat bai; goizean goiz jaiki beharra gutxiago kostatzen da behinik behin. Zure denbora horrelako lan bati eskaini eta txirrindulariak gogoz ari direla ikustea da gure saria; garaipenak bada toz, hobe.

Denboraldian zehar, ba al zenuen indartsuago egoteko lasterketa zehatzik?

Egia da guri Gipuzkoako Itzulia eta Iruñeko Itzulia sasoi onean egotea gustatzen zaigula, baina gauzak ez dira beti matematikoak izaten. Gipuzkoako Itzulia oraindik azterketa garaia gertu zuten eta hala ere lehen etapa irabazi zuen Imanolek, bi egunetan lider izateaz gain. Enekok tarteko

helmugen sailkapena irabazi zuen eta Olanok hirugarren izan zen sailkapen nagusian. Abuztuan, Iruñeko Itzulirako lortu zuten sasoirik onena.

Zein izan da denboraldian zehar ezagutu duzuen momentu bereziena?

Dudarik gabe, Anoetako lasterketa. Etxean aritzea eta sailkapeneko lehenengo laurak izatea guztiz pozgarria izan zen.

Baliteke aurtengoa Oriakoren jubenilen historian izan den denboraldirik arrakastatsuenetakoa izatea, ez al da hala?

Talde bezala nire ustez hau izan da onena. 1999an Josu Agirrek denboraldi paregabea burutu zuen, baina talde bezala baliteke 1995ean Arto-la, Aierbe, Del Rio eta Mendizabalek egindakoa izatea antze-



HITZA

koena. Zaila da belaualdi berean hauen moduko lau txirrindulari topatzea; Imanolek, Enekok, Xabik eta Aitorrek egin dutena jendeak uste duena baino zailagoa da. ◀

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



EKONOMIA ▶

Kolore anitzeko erretratu

Papergintza da eskualdeko jarduera nagusia; etorkizunari begira, dibertsifikazioa lortu nahi dute



Zortzi paper fabrika daude Tolosaldean; eskualdeko jarduera nagusia da papergintza. JON URBE / ARGAZKI PRESS

LEIRE OLAETXEA / BERRIA

Kontraesanak nagusi dira Tolosaldean. Eskualdea deskribatu behar izanez gero, menditsua, udalerrri txiki osaturikoa eta postalak diruditen paisaiaz eta baserriz bete dagoela esango genuke lehenik. Hori, ordea, Tolosaldearen alde bat baino ez da. Ezin dugu ahaztu kostaldetik 25 kilometroraino ez dagoela, ezta eskualdeko Barne Produktu Gordinaren %52 industriatik datorrela ere. Turismoa eta merkataritza, ordea, nabarmen suspertu dira.

«Udalen antolaketa» Tolosaldeko bereizgarri dela azpimarratu dio BERRIARI Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzen-eko gerentea. Izan ere, 28 udaldiru osatzen dute eskualdea, Gipuzkoako udaldiru herenak. Gehientsuenek ez dute 1.000 biztanleko muga gaindituko, baina orotara 45.000 dira. Tolosa da hiriburua. Alegia, Anoeta, Ibarra, Villabona eta Zizurkil doaz atzetik. «Txikiak gabe Tolosaldeak ez luke aurrera egingo», ohartarazi du Goikoetxeak.

Papera da industriaren oinarria. «Gipuzkoan 15 paper fabrika daude, eta zortzi Tolosaldean». Hori dela eta, «es-

Apattaerreka industrialdea

Tolosaldea Garatzen-ek Apattaerrekako industrialdea sortzea bultzatu du, industria lurren beharra asetzeko asmoz. Bi hilabeteren buruan izango da abian ziurrenik, eta jada gunea-neren %70 bete dute. Udalek egin dituzte ekarpenak, elkarrekin banatuko duten industria eremua eraikitzeko. Parte-hartzearen %80,42 Tolosarena eta Ibarrrarena da. Hiru helburu ditu: eskualdeko jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzea eta berritzea, ekoizpen sektoreen jarduerak dibertsifikatzea eta industria berrantolatzea. ◀

kualdeko industria guztiaren sostengua papergintza» dela azaldu du Goikoetxeak. «Erabateko monolaborantza sortu dugu, lau azpisektoretatik». Izan ere, balio kate osoa integratzea lortu dute. Paper ekoizpenetik haratago, galdatze lanak, paper fabrikarako makina ekoizleak eta papera manipulatzeoko industria osoa bildu dute. «Ekoizpen

katea oso bildua dago». Dena dela, ohartarazi du papergintza sektorea heldua dela, eta «teilatutik ez jotzeko asmoz» dibertsifikazioa landu nahi dutela. «Enpresak ohartu dira aldaketan beharraz eta eskakizun zehatzak egin dizkigute». Industria lur gehiago, trebakuntza egokia, teknologia berritzaileak, enpresen arteko harreman bultzatzea eta dibertsifikazioa sustatzea, hain zuzen.


Langileen %50, zerbitzuetan

Industriari ez ezik, keinu garrantzitsua egin die Tolosaldeak turismoari eta merkataritzari ere. Goikoetxearen arabera, «aukera handiak dituen sektorea da, eta eskualdearen eskaintza oso zabala da». Hala ere, industriaren pisua ukaezina dela onartu du. «Berrikuntza teknologikoekin sektore nagusien jarduera hobetu eta suspertzea eta aukera berriak sortzea da gure xedea», baieztatu du. «Azken finean, enplegua sortzen dutenek Tolosaldea aukeratzeko baldintza egokiak sortu nahi ditugu».

Industriari bezainbeste eragiten dio paperak eskualdeko enpleguari. Bigarren sektoreko langileen %65 jarduten dira papergintzako sektorean. Oro-

TOLOSALDEA


BIZTANLERIA: 44.881 (2001)



LANGABEAK (INEM):
1.353 (2004)

SEKUA

36,81



ADINKA


38,73



LANDUNAK: 18.844 (2001)

SEKTOREKA

2,43



UDAL BALIO ERANTSAREN EGITURA (2000)

POSTZENAKA	Nekazaritza	Industria	Erakuntza	Zerbitzuak
EAE	1,4	32	6,8	59,8
Gipuzkoa	0,94	36,12	5,41	57,53
Tolosaldea	1,64	52,09	5,84	40,44
Abaltzisketa	8,36	17,69	6,88	67,07
Aduna	0,64	66,44	2,97	29,93
Albiztur	4,8	75,88	1,47	17,85
Alegia	0,79	60,18	1,95	37,08
Alkiza	21	19,92	4,52	54,56
Alto	2,6	81,1	3,02	13,27
Amesketa	5,03	58,48	7,38	29,11
Anoeta	0,45	68,84	6,13	24,58
Asteasu	2,89	67,5	11,82	17,79
Balagrain	11,84	13,25	42,12	32,79
Belautza	0,97	81,28	2,79	14,97
Berastegi	2,85	76,18	4,53	16,44
Berrobi	3,86	70,78	0,15	25,2
Bidegoian	7,13	56,64	1,92	34,31
Elduain	23,53	29,12	17,43	29,91
Gaztelu	20,94	19,33	12,01	47,72
Hernialde	5,7	22,77	36,81	34,72
Ibarra	1,52	36,45	2,89	59,14
Ikaztegieta	1,97	49,68	10,22	38,13
Irura	0,2	72,86	3,64	23,3
Larraun	22,62	19,59	30,09	27,71
Leaburu	3,23	41,42	20,39	34,95
Lizartza	2,81	57,43	4,99	34,77
Orendain	15,68	12,71	33,92	36,7
Orexa	25,69	33,04	1,46	39,81
Tolosa	0,48	38,83	5,32	55,38
Villabona	0,76	40,99	5,8	52,44
Zizurkil	2,11	61,78	5,02	31,08

FAMILIA-ERRENTA GORDINA BIZTANLEKO. UDALERRIKA (1997)

UDALERRIKA	Familia errenta	Indizea
EAE	8.258	100
Gipuzkoa	8.399	102
Tolosaldea	7.339	89
Abaltzisketa	7.576	92
Aduna	6.930	84
Albiztur	8.508	103
Alegia	7.416	90
Alkiza	7.791	94
Alto	8.341	101
Amesketa	8.299	100
Anoeta	7.331	89
Asteasu	7.212	87
Balagrain	7.811	95
Belautza	7.441	90
Berastegi	7.208	87
Berrobi	7.334	89
Bidegoian	7.634	92
Elduain	8.761	106
Gaztelu	8.220	100
Hernialde	7.046	85
Ibarra	7.374	89
Ikaztegieta	8.202	99
Irura	8.076	98
Larraun	6.845	83
Leaburu	9.422	114
Lizartza	8.880	108
Orendain	8.006	97
Orexa	8.285	100
Tolosa	8.823	107
Villabona	7.487	91
Zizurkil	7.409	90

ITURRIA: ERETXE

tara, langileen %35 biltzen ditu industriak, %50 zerbitzuek eta %10 eraikuntzak.

Gainera, N-1ek eta A-15ek bidea errazten dutela azpimarratu zuen Goikoetxeak. Andoingo edo Hernaniko paper fabrikekin harreman zuzena izateko aukera ematen die hurbiltasunak. Dena dela, N-1 errepidea hobetzeko garaia dela adierazi du. «Edonoiz istripuak izaten dira. Istripuak ez diren, itzelezko zirkulazioa izaten da». Gipuzkoako eta Tolosaldeko orografiak ere eskualdearen garapena baldintzatzen

duela jakinarazi du. «Zelaiak beteta daude jada, eta, beraz, hedatzeko beste formula batzuk asmatu beharko ditugu».

Etxebizitzetara ere eragin die eraikitze eremuen betekadak. Goikoetxearen hitzetan, eskualdeko joera «mantentzeko» da. Etorri eta joan, kopuru berean, beraz. Eskualdean ere etxebizitzetara prezioa nabarmen garestitu dela onartu du. Hala ere, azken urteotan Ibarra eta Iruran etxe asko eraiki dituztela azaldu du Tolosaldea Garatzen-en ordezkariak. «Beraz, herri horiek hazi dira gehien».

GUTUN@K 

► izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Herriaren hitza errespetatu (2)

Zergatik jarduten du horrela EAJ-PNVk?

Ezin da ahaztu EAK eta IU-EBK apartheid politikoa gauzatzeko erantzukizuna. Baina, bere gain dituen ardura politikoa eta egoera honetan onura handiena lortzen duela, apartheid politikoa erantzukizun nagusia EAJrena dela nabarmena da.

EAJren azken helburu politikoa boterean jarraitzea da, erakundeetako dirua kudeatzea eta bere balizko proiektu politikoa inguruan. Ibarretxe Planaren inguruan gizartearen gehiengo nahikoa biltzea ezinbestekoa zaio orain. Horretarako gizarte sektore bat erakundeetatik kanpora man-

tentzea komeni baldin bada, egin eta kito. Herriz herri apartheid politikoa aplikatuz herri honen zati garrantzitsu bat ito egin nahi dute, ito egin nahi gaituzte eta etsipenera eraman. Asmo honen gauzatzeko besterik ez da herriz herri egiten saiatzen ari direna. Gure proiektu politikoa baztertu, ezkutatu nahi du-te; ez gara existitzen.

Tolosa Bizirik ekimeneko zinegotziok, zera adierazi behar dugu: herri hau irtenboiderik gabe utziko lukeena, berriz ere duela 25 urteko akatsak errepikatzea litzateke; hau da, herri hau beste 25 urterako hiru herrialdeetarako autonomiaren errepikapena besterik ez den marko zatikatzaile eta suntsitzailearen kondanatzeko eta ez al da hori Ibarretxe Planak proposatzen diguna?

Horregatik, herriz herri

EAJk gauzatzen duen apartheid politikoa inmorala eta lizuna izateaz gain alferrekoa ere badela ozen aldarrikatu nahi dugu. 25 urteko borrokaren ondorioz gure herria amildegira zeraman marko autonomikoa, EAJk orduan eta ondorengo urte luzetan babestu zuen berbera, krisian jarri ondoren, hainbeste lan eta sufrimenduren ondoren, ez dugu txapuz berri bat onartuko.

Badugu alternatiba Ibarretxe Plana EAJren proiektu politikoa da eta ondorioz gu-re errespetu osoa merezi du. Baina ez da nork bere proiektua defendatzeko garaia. Une honetan, gure uestez, joko arauak hitzartu behar dira; hau da, gure herriak proiektu guztien artean erabaki ahal dezan baldintzak sortu

eta erabaki hori Espainiak eta Frantziak errespetatuko duten bermea lortzeko unea da. Horri autodeterminazio eskubidea deritzaio. Horretarako ari gara Udaltaldean eta Nazio Garapen Biltzarrean lanean, Euskal Herri osoa aintzat harturik.

Gaur egun Euskal Herriko gizartearen gehiengo zabal batek onartzen du gatazkaren konponbidea herri honen aitorrtzan eta bere eskubide nazionalen gauzatzeko datzala, hitz batean herriari hitza eman eta honen erabakia errespetatzea. Eta gutxiengo horren inguruan adostasuna lortzeko guk eskua zabalik dugu.

Horregatik ezin dugu onartu apartheid politikoa tresnatzat hartuta irentsi arazi nahi duguten gozoki pozoindua, Ibarretxe Plana. Izan ere, nola

fida gaitzake Madrili herriaren hitza errespetatzea eskatzen dion bitartean berak bere herriari muzin egiten dion hartaz?

Guk gure aldetik garbi dugu apartheid politikoa aurka borrokatzea herriaren hitzaren eta erabakiaren alde borrokatzea dela, autodeterminazio eskubidearen bidean urratsak ematea. Eta azken 25 urteetan bezalaxe lan horretan jarraituko dugu datozen hilabete erabakiorretan ere, eta dei egiten diegu Tolosako abertzale guztiei ere lan horretan murgil daitezen.

Tolosan ere, herriaren hitza errespetatu!

ANTTON IZAGIRRE, BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN, IBAN ORTIZ ETA AITOR IZTUETA ► TOLOSA BIZIRIK HERRI EKIMENKO ZINEGOTZIAK

*Igdako gutunaren jarraipena

KULTUR ASTEA ►

Auzoetako jaien alde

San Esteban auzokoek prest dute XVII. Kultur Astea; gaur goizean hasiko da, eta hilaren 17an, bazkariarekin bukatuko

IRATXE ETXEBESTE

Gaur hasi eta hilaren 17a bitartean, XVII. Kultur Astea egingo dute San Esteban auzoan. Tonttor San Esteban Auzokide Elkarteak antolatatu du berriz ere Kultur Astea Tolosako Udaren laguntzarekin, eta askotariko ekitaldiak prestatu dituzte igandea arte.

Tolosako XVII. Herri Krosak emango dio hasiera gaur bertan Kultur Asteari. 11:00etan hasiko da korrikalarien arteko lehia entzutetsua, eta urtero bezala, kirolari asko eta asko bilduko ditu txapelketak. Bihar, *Inauteriei atzera begirada* izeneko proiektioa eskainiko dute iluntzeko zortzietan elkartearen egoitzan eta etzi II. Patata

Tortila Lehiaketa, *lunch*-a eta antzerki emanaldia izango dira. Lehiaketari 19:00etan ekingo diote parte-hartzaileek, eta Panico eszeniko taldearen *Solas* antzezlanak 22:30ean hasiko da, auzo elkartean.

Ostiralean, berriz, musika emanaldiak izango dira nagusi. 22:30etik aurrera kontzertua izango da San Esteban auzoan: Karun Karama taldeak Afrikako dantza eta perkusio ikuskizuna eskainiko du, eta jarraian DJ Talo eta Aritz Sound Sistem ariko dira taula gainean. Ordu berean, hain zuzen ere 22:30ean, Evaristoren Gatillazo taldeak kontzertua eskainiko du. Bonbereneak antolatatu du ekimen hori, eta Bonberenean bertan izango da.

Larunbaterako haurrentzako ekitaldiak prestatu nahi izan dituzte antolatzaileak bereziki. 16:00etan Altxorraren bila jolasa egingo dute haurrek eta gaztetxoek; ordu berean mus txapelketa izango da helduentzat; 16:30ean haur jolasak izango dira; 18:00etan buruhandiak; 19:00etan txokolate jatea eta gauerdian Atila y los Unos taldearen kontzertua izango da auzoan. Musikari tolosarren emanaldia amaitzean, DJ Jawatak jardungo du.

Igandean emango diote bukaera San Esteban auzoko herritarrek aurtengo Kultur Asteari. Goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak egun horretan, eta bazkariarekin amaituko dute astea. 09:00etan diana



Tolosako XVII. Herri Krosa egingo dute gaur goizean. I. ETXEBESTE

izango da herriko txistulariekin egunari hasiera behar bezala emateko; ordubetik beranduago auzoko baserrietatik trikitixa jotzera irtengo dute; auzoko hildakoek alde meza izango da 11:00etan San Frantzisko elizan; 12:30ean toka txapelketa izango da gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat eta 14:30ean auzokideen arteko bazkaria egingo dute San Este-

banen. Bazkariaren ostean dantzaldia izango dute auzokideek Algara orkestrarekin, eta gisa horretara bukatuko dute aurtengo Kultur Astea.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, auzokideentzat eta auzoan bizi ez direnentzat antolatzen dute urtero Kultur Astea. Izan ere, auzoetako jaiak «bultzatu egin behar dira», etorkizunean gal ez daitezzen.

BERRIAk komertzialak behar ditu Tolosaldean (erref.: 0518)

Eskaintzen da:	Eskatzen da:	Kontuan hartuko da:
<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea. • Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin. • Soldata finko interesgarria eta komisioak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz jakitea ezinbestekoa da. • Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea. • Autoa izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskarmentua izatea antzeko lanetan. • Eskualdekoa izatea. • Eskualdea ondo ezagutzea.

Interesa izanez gero, curriculum zehatza bidali urriaren 18rako gb@berria.info HELBIDE ELEKTRONIKORA edo beste helbide honetara: BERRIA Giza Baliabideak Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

TOLOSA ▶ BERAZUBIKO JAIK

Gaur bukatuko dira jaiak ohiko txistorradarekin

Haurrak izan ziren protagonista atzo; gaur lehiaketa desberdinak izango dira ikusgai



Urmeak alaitu zituzten Niruka, Mixka eta Kuki pailazoek. I. TERRADILLOS

I. TERRADILLOS

Ederki igaro zuten eguna gaztetxoek, beraiantzat hainbat ekitaldi prestatuak baitziren goizean goizetik atzoko egunean. Marrazki politik ikusi ahal izan ziren auzoko plazan, txikiek eginiko lehiaketa izan baitzen. Eguerdia partean tokan lehiatzerak ere animatu ziren gaztetxoek.

Arratsaldean, haur jaialdia izan zen eta umeentzat opari eta gozokiak banatu zituzten antolatzaileek. Horrez gain, Niruka, Mixka eta Kuki pailazoek emanaldia izan zen Berazubin. Haur asko gerturatu ziren, eta pailazoak ikusiz ederki pasatu zuten arratsaldea. Jaialdiaren ostean indarberrietzeko, merienda banatu zuten.

Postre lehiaketak, Nekaeziak txarangarekin izandako

danborradak eta gaueko disko festak osatu zuten atzoko eguna.

Gaur, bizikleta trabesia

Gaurko ekitaldi garrantzitsua 10:00etan izango da, mendiko bizikleta trabesia antolatu baitu Mendikute elkarteak. Txirindulariek lan gogorra izango dute eguerdia bitarte.

Bestalde, 11:30ean emakumeen toka txapelketa izango da eta 12:00etan I. Txapel Jaurtiketa auzoko plazan. Bakailao lehiaketa eta balkoirik alaienaren lehiaketa izango dira ondoren.

Arratsaldean, berriz, I. Futbolin lehiaketa eta dantza saioak izango dira ikusgai.

20:00etan egingo den txistorradak emango die amaiera aurten go jaiei.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Denboraldiko partida onena egin arren, 3-4 galdu du Ibarrak

Epailleek egindako lanak zeresan handia eman zuten eta partida galtzearen errudun bakarrak zirela salatu zuten



Joko ona erakutsi zuen Ibarra areto futbol taldeak larunbatean, baina ez zuen irabazterik izan. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Arerio indartsua izan zuen arraren larunbatean Ibarra areto futbol taldeak, baina, hala ere kokildu gabe egin zion aurre. Ibarra taldeak bazekiten Cantabriako (Espainia) Candesa Camargo taldeko jokalariek indarragatik bereizten direla, eta ondorioz, haiek ere inoiz baino gogorrago aritu beharko zutela. Eta horrela izan zen. Orain arteko partidari hoberena burutu zuten ibarretarrek azkeneko unean markagailuak hori irudikatu ez bazuen ere.

Epailleek egindako lana askotan erabakiorra izan ohi da eta horrela gertatu zen larunbatean Ibarra Belabieta kiroldegian jokatu zuten partidari. Hauek hartutako erabakiak ikusten zenarekin bat ez zetozela zirudien eta honek hasierara sortu zuen, bai Ibarra jokalarien artean, eta baita ikustera joan ziren zaletuen artean ere. Hala ere, aipatzekoa da zaletuek erakutsi zutena; partida osoan zehar taldea animatzen jardun zuten eta epai-

leak betetzen ari ziren lanarekin gustura ez bazeuden ere, errespetuz jokatu zuten.

Honen guztiaren aurrean, Candesa Camargoren jarrera ona zela aipatu behar da, eta betiere, kontuan hartuz berriak ez zirela epailleek hartzen zuten erabakien arduradun.

Etxekoak nagusitu

Ibarra partidaren jauna eta jabe zela erakutsi zuen hasieratik. Gogor hasi zen jokatzeko, eta erritmo handia jarri zion partidari eta honek aukera argiak sortzea ekarri zuen berekin.

Hala ere, aukerak, sortzeaz gain gauzatu egin behar dira. Bi edo hiru jokaldietan aurka atezainaren aurrean bakarrik geratzea lortu zuten ibarretarrek, baina baloia sare barrura sartzen ez zuten asmatu.

Hamabost minutu igaroak zirenean iritsiko zen lehendabizikoa Santanderetik zetorren taldearen eskutik.

Atsadenaldirako bi minutu geratzen zirenean, Aierza izan

zen baloia lapurtu eta atezaina garaitu ondoren berdinketa egitea lortu zuena. Minutu bat irauko zuen berdinketa horrek, korerretik etorri zen jokaldi batean Candesa Camargok 1-2koa egin baitzuen.

Bigarren zatian joko ona egin jarraitu zuen etxeko taldeak eta partidari buelta emango zion itxaropena zegoen. Gainera, segituan iritsiko zen berdinketa. Karrerak baloia lapurtu ondoren kontraerasoari ekin zion. Pradosi pasatu eta honek sare barruan sartu zuen baloia.

Labakak sartu zuen hurrena 21. minutuan eta Ibarra aurretik jarri zen. Baina penaltia ikusi zuen Ibarren kontra hurrengo jokaldian epailleak, eta berdintzea lortu zuten espainiarrek. Antzerako jokaldi batean falta adierazi zuen epailleak eta penalti bikoitzez sartu zuten 3 eta 4koa.

Azken jokaldiak ere eman zuten zeresana; falta ikusi zuen epailleak Ibarren alde, baina ez zuten jaurtitzetik izan han zirenen harridurarako.

MARIO
por alusión

Leidor Tolosa

Urriak 15
ostirala
22:30

TOLOSASKO UDALA

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitze eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

KIROLA ▶

270 kiloko harria bizkar gainera jaso du Perurenak

20 urte besterik ez, eta beste marka bat gehiago egin du kirolari gazte honek

J. ASTIBIA

Inaxio Perurenak 270 kiloko harrizarra bizkar gainera jaso zuen, larunbat gauez, Agurainen egin zuten herri kirol jaialdian. Perurenak bi eskuekin bere marka ahalegina hobetzea zuen lana, eta baita egin ere: 20 urte besterik ez, eta 270 kiloko harriari ekin zion, bizkarreratzeko 5 minutuko denbora izanik.

Txistua jo eta 14 segundutarako bizkarrean zuen 3 kolpetan, baina azkenekoa non-bait haundiskoa eman ere egin zion, eta beti ondoan izaten duen laguntzaileari, aitari, arriskutsua irudituz edo, harria eskuarekin ukitu zion, ondorioz epaileak altxaldia baliogatu egin ziolarik. Gauzak horrela, denbora ere aurrera zihonan eta, beste saiakera egitea erabaki zuten: 2 kolpe eta hirugarrenean berdindu. Horixe egin zuen gazteak, oraingo harria ekartzan gehixeago kostatu bazitzaion ere.

Inolako zalantzarik gabeko jasoaldiarekin, beste marka ikusgarria erantsi zion bere kirol lorpenen zerrendari, eta negua oraindik hasi ere ez!

LEITZA ▶ GIZARTEA

Maxurrenea herrirako eskatuz, jende asko

Manifestazioa guardia zibilen talde berezietz inguratuta egin behar izan dute berriz ere, baimena eskuan izan arren



Manifestazioak herriko auzo guztiak igaro zituen. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Larunbat iluntzean, Maxurrenea Herrintzat herri ekimenak manifestazioa burutu zuen herriko kaleetan barrena, *Maxurrenea herrintzat Alde hemendik!* lelopean. Ekimenak hila-betero antolatuta ohi dituen ekitaldiekin jarraituz, txanda honetan Askatasunak deitutakoa izan zen manifestazioa eta 250 bat lagun inguru bildu ziren bertan. Heldu eta gazte, umee-kin zihozten bikote zein herri-

ko ordezkari... guztiak ere manifestazioaren buruko pankartako leloarekin bat eginez, «Maxurrenea etxea Leitzako herriaren gabeziak asetzeko behar da, herritarrok erabakitako azpiegiturak antolatze-ko», aldarrikatu zuten eta «ez, herriaren nahien aurka, etxea berenganatu eta Guardia Zibilararen koartela hor ezartzeko, duela jada urtebetez geroztik hor dauden bezala», erantsiz. Manifestazio amaieran irakurritako komunikatuan aditzera

eman zutenaren arabera, Maxurrenea Leitzak dituen beharretarako erreklamatu zuten eta aldi berean «etxearen okupatzaileei Maxurreneatik eta Leitzatik ez ezik, Euskal Herri- tik ere alde egin dezatela», exijitu zieten, egun Maxurrenean ezarrita dagoen Guardia Zibilareri erreferentzia argia eginez. Ekitaldia *Eusko Gudariak* kantatuz eta txaloz bukatu zuten bertaratuek.

Inguratuta

Ekitaldiak, Espainiako Estatu-ko ordezkariari komunikatu eta debekurik jaso ez bazuen ere, bestelakoa zuen itxura. Izan ere, manifestariak, ibilbide osoa, eta ondorengo ekitaldia ere, Guardia Zibilarren talde berezi batez inguratuta egin baitzuten, kasko eta borraz hornitutako agenteak aldeetara eta atzetik Patrol bat zutela.

Aipatzekoa da, bide batez, ekitaldia bukatzeaz zegoela, egun horretako gertakari horren berri jasotzen ari zen egunkari honetako langileari identifikazioa eskatu ziotela bereganatu zirenen bi agentek, eta laneko kredentzialak erakutsi arren, bere datu pertsonalak emanarazi eta egunkariari buruzko galderak egin zizkiotela.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldikaria: 30 07 32
▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga A., Korreo kalea, 2, (Tolosa). 943 670 128.
Gimeno A., Elbarren, 52, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitzak salgai 34.500.000 pezetatik aurrera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 185 m2-ko etxebizitza zoragarria salgai. Egongela, sukalde-

jangela, 5 logela, 2 bainugela eta trasteleku. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 75 m2-ko etxebizitza salgai, 3 logela, aparteko egongela-sukalde amerikarra, bizitzera sartzeko moduan. 34.000.000. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Eraikuntza berriko 90 m2-ko etxebizitza, egongela, sukalde, 3 logela eta 2 bainugela. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 69 m2-ko etxebizitza, trasteleku, egongela, sukalde eta 2 logela. Eraiki berria, kanpokaldera begira. 4. pisua igogailuarekin. Inmo Etxesagasti. 667 03 03 79 / 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m2-ko etxebizitza, egongela, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 667 03 03 79 / 943 69 68 56.

Ordizia. 291 m2-ko etxea salgai. 3

solairuko. 1.037 m2-ko lursaila. 80.000.000. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

Ordizia. 50m2-ko etxebizitza salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatze. 25.000.000 pezeta. Ezin hobeto. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 85 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukalde handia, hiru logela, bainugela eta trastelekuarekin. Berritu berria, altzariz hornitua. 29.900.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lizartza. Baseri oso polita, 155 m2-ko 2 solairu ditu, berritua, 1.800 m2-ko lursailarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 85 m2-ko etxebizitza. Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Berritzeko. 36.000.000. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 90 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukalde, 4 logela eta

bainugela. Guztiz kanpokaldera eta berritua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 61 m2-ko eta 8 m2-ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpokaldera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Berrikuntza behar duen baserria salgai, lursailak inguruan. Inmo Etxesagasti 943 696 856.

Ibarra. Taberna salgai, 60m2ko 2 solairu ditu, egokitua. Inmo Etxesagasti 943 696 856.

Errezil. Nekazal etxea alokairuan, pertsonalki informatuko da. Inmo Etxesagasti 943 696 856.

Eskari handiagatik. Nekazal lursailak, urbanistikoak, pisuak, etxe abikiak, baserriak... behar dira. Salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti 943 696 856.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurra. Txakur bat (Lagun) galdu da Altxo inguruan. Inork ikusi badu deitu: 658 706 781 edo 679 251 698.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 12a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Alburuz, Alegia, Altxo, Alzo, Ametzola, Anoeta, Balarriari, Balarrieta, Berastegi, Etxuan, Herrialdia, Ibarra, Irua, Lantza, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Vilabona, Zaurki

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauriaritza
Kultura Saila



GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzera

13

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Ezker abertzalearen bilera. Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean. Bi gai izango dituzte hizpide: kokapen politikoa eta ildo politiko nagusia, *Euskal zikloaren erronka* izenekoak.

Tolosa. Ikasturte hasierako bilera Hirukideko ikasleen gurasoentzat. Bihar, Lehen Hezkuntza 1eko gurasoekin bilduko dira Jesuitinetan 17:30ean eta Lehen Hezkuntza 4ekoenkin 18:30ean leku berean.

JAIAK

Berazubi (Tolosa). Goiz eresia 09:00etan Tolosako txistulariekin; ordu berean, azuko hildakoen aldeko meza; 10:00etan, mendi bizikleta trabesia; 11:30ean toka emakumeentzat plazan; 12:00etan I. Txapel Jaurtiketa plazan; 13:00etan bakailaoa saltsan eta balkoi alaiaren lehiaketak; 14:30ean bazkaria bakailao lehiaketaren partaideentzat eta sariak; 17:00etan I. Futbolin Lehiaketa plazan; 19:00etan Izaskun Arriola eskolaren eskutik dantza saioa eta 20:00etan jai amaiera txistorradarekin azuko bizilagun guztientzat.

KULTUR ASTEA

San Esteban (Tolosa). Ttotor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak antolatuta, XVII. Kultur Astea hasiko da gaur. 11:00etan, Tolosako XVII. Herri Krosa.

NAFARROA OINEZ

Belauntza. Nafarroa Oinez ekitaldira autobusez joateko izen-emateko azken eguna bihar, Kultur Etxean. 6 euro ordaindu behar da. **Ibarra.** Gazte Asanbladak antolatutako autobusean Lizarrara joateko Zubiaurre eta Karlitz tabernetan eman behar da izena. Ibarako ikasleek eta langabetuek 5 euro eta kanpokoek eta langileek 8 euro.

ZINEMA

Tolosa. *Spy kids 3D.* Gaur, 17:00etan, Leidor zinema aretoan eta *Olvidate de mi,* 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen Eguna.

Zaldunak mendietan gora

LEITZA ▶ Goizean goiz, egun beteko ibilaldia egin asmoz, zaldi eta behorrei kaprestuak jantzi eta herriari itzulia eginez, mendiz mendi ibili dira 40 lagun



«Bagoazela» esan zutenean, bakoitzak bere aberea hartu, kaprestuei azken ukituak egin eta bideari ekin zioten. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Larunbat goizean itxura berezia ageri zuen Inguaruarte zelaia. Goiko Errotatik igaro zen ibiltari goiztiar batek baino gehiagok begiak igurtzitzeari ekin zion, oraindik ongi esnatzekoa zegoenaren ustean edota Mendebalde Urruneko zelai eta cow-boy-ekin ametsetan ez zegoela ziurtatzeko ere bai.

Zer zela eta hango autoen eta gurdien emana? Eta ondoko belatsoan zegoen behorren

irrintzi saioa? Eta multzo bate-tik bestera joan-etorrian zebiltzen Texasko zapeladunak? Bada, haraxe bertaratu ginen eta zalantzetatik atera.

Egitekoak ziren mendi ibilaldiaren prestakizunak ziren: zaldiz, leitzako herriari inguru luzea egitera joateko asmoa zuten, han bildu ziren 40 lagun inguruk. Leitzan bertako hamar-hamabi lagunez gain, inguruetak herrietako zaldizaleak ere hantxe ziren hauek gonbidatuta eta prestatu zuten ibilbidea egiteko prest. Batzuk

goizean goiz, oraindik ilun zela, jaiki, zaldia jantzi, zalgurdiari sartu eta bertara etorriak.

Egia esan, goiztiro freskoko udatzeneko egun eguzkitsua ikusita, inbidia ere ematen zuen eta beraiekin ibilbideari ekiteko gogo biziz gelditu ginen. Izan ere, inguru polita egin zuten zaldun hauek eta herria hegoaldeko nahiz iparraldeko ikusteko aukera izan zuten, aldatan gora eta behera ibiltzeko eta baita zelai-zelai patxadaz ibiltzeko ere, itzulera Plazaolako bide berdetik ba-

rrena egin baitzuten, azkenik herrigunea behetik gora iluntze aldera zeharkatuz.

Egun eder askoa bota omen zuten, hala esan digute behinik behin, eta istripu larririk gabea, bakarren batek ostikoren bat jaso bazuen ere. Batzutan, zaldiak ere urduri jartzen omen dira, bakarrik ohitutakoa edo beste abere arrotzekin ibiltzerakoan.

Kontuak kontu, ikusteko polita izan zen, bideetako harrietan troteko perra-soinuak aditzeko ere bai. Arre!

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK
Amona Pilar.



URTE ASKOAN
Iker Corral (Anoeta). Atzo 7 urte. Aitarene eta amaren partetik muxu bat, pottoko.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!